

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

Nafarroako Gobernuak jarduera berriak antolatu ditu abenduaren 18tik 24ra bitarteko asterako:

Astelehena, 2017.eko abenduak 18

Gloria Fuertesen omenezko zikloaren azken txanpara iritsi da Nafarroako Liburutegia, “El desván de Gloria ¡qué fuerte!” antzezlanaren eskutik (Dittirambo Teatro), ikusle guztientzat, astelehenean, 18:00etan; Gloria Fuertes mendeurrenaren urtearen amaierak Versonante bikotearen “Poeta de guardia” kontzertua eta poetak utzitako ondareari buruzko mahai-ingurua ekarriko ditu, asteazkenean, 18:00etatik aurrera.

Horrez gain, Nafarroako Liburutegiak Edurne Portela eta José Ovejeroren “¿Por qué seguimos escribiendo en el siglo XXI?” hitzaldia hartuko du, ostiralean, 18:00etan.

“Yo, la peor de todas/Ni, denetan okerrena” proiektuaren barruan, asteazkenean, 19:30ean, “Activación de la obra PACÍFICO #9. La conquista del desierto por sus autores” performancea egingo da Nafarroako Museko kaperan, Laida Azkona eta Txalo Tolozaren eskutik.

Musikaren txanda ostiralean izango da, 19:00etan, Gayarre antzokian, Ariadna Martínez eta David Echeverría protagonista arituko diren “El caballero, la luna y la princesa” ipuin musikalaren eskutik.

Nafarroako Filmotekak, aldiz, hiru film emango ditu, 20:00etan. Asteazkenean, “Krimen perfektua”, “Alfred Hitchcock oinarritzkoa” zikloaren barruan. Ostegunean, saio bikoitza izango da, pilotari buruzkoa: “Labrit 65” (2017, Iñaki Navarro, Lucía Arrieta) eta “Beti Jai. La capilla sextina de la pelota” (2015, Richard Zubelzu).

Karlismoaren Museoak “Meatzariak gerran” erakusketa hartuko du. Karlismaldien eta Espainiako Gerra Zibilaren arteko aldiaren erabilitako



Erakusketaren kartela.

meatze-teknikak eta trintxerak egitekoak erakusten ditu, Lehen Mundu Gerrarenak nabarmenduta.

[Esteka](#) honetan duzu kultur programazio osoa: